BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3303

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 4koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2014. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko eta ukatzeko dena. Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez, 2014. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen (2013ko abenduaren 26ko EHAA, 245. zk.). Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko emango dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Ebazpen horren 12.1 artikuluan ezartzen denez, eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen batez ebatziko dira, horretarako izendatutako Hautaketa Batzordeak proposatuta. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Artikulu horren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko ebazpen honetan zehazten dira diru-laguntza eman eta ukatu zaien enpresak eta entitateak, izendatu zaizkien diru-zenbatekoak eta, onuradunen batek uko eginez gero, ordezko izango diren entitateak.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean dauden enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ematea, bakoitzari izendatu zaion diru-zenbatekoaz. Guztira, ehun mila (100.000) euro eman dira.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuak ordezko izendatzea. Gehienez jaso lezaketen zenbatekoa ere zehazten da.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ukatzea, ukapenaren arrazoia esanez.

Laugarrena.– Entitate eta enpresei gogorarazten zaie ezen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko abenduaren 3ko Ebazpenaren 6.2 artikulua aplikatuz, laguntza hauen entitate eta enpresa onuradunek Lankidetza Erakunde bihurtu behar dutela, eta, horretarako, espresuki egin behar dute eskabidea, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitorpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.– Laguntza hauen entitate eta enpresa onuradunek 15 egun izango dituzte –jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera– diru-laguntzei uko egiteko, halaxe ezartzen baita Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko abenduaren 3ko Ebazpenaren 13 a) artikuluan.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 4a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

I. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa (eurotan)
004-2014-DPI	Comisión Ciudadana anti-sida de alava	9.240,00
017-2014-DPI	Atzegi	7.400,00
015-2014-DPI	Avifes -. Asociación vizcaína de familiares y personas con enfermedad mental	9.208,00
022-2014-DPI	Asociación Izangai	5.924,00
021-2014-DPI	Agipad	10.000,00
012-2014-DPI	Berziklatu, S.L.	5.950,40
010-2014-DPI	Construcciones Iturrioz, S.A.	2.350,00
001-2014-DPI	Asociacion T4 de lucha contra el sida / Hiesaren aurkako T4 elkartea	8.012,80
006-2014-DPI	Fundación Hurkoa	6.400,00
013-2014-DPI	Fundación Harribide	8.012,80
005-2014-DPI	Fundación Eragintza	6.400,00
009-2014-DPI	Traeco medioambiental, S.L.	6.500,00
018-2014-DPI	Gmsm medio ambiente, S.A.	4.450,00
003-2014-DPI	Deitel direct, S.L.	3.425,00
014-2014-DPI	Beaskoa, Elorriaga eta Iribar, S.L.	5.785,13
008-2014-DPI	Ascensores Muguerza, S.A.	941,87
GUZTIRA		100.000,00

II. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ORDEZKOAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa gehienez (eurotan)
002-2014-DPI	Compañia de servicios sociales San Ignacio, S.A.U.	8.000,00
020-2014-DPI	Huhezi, Koop. E.	8.637,37
023-2014-DPI	Transitia, S.L.	5.750,00
016-2014-DPI	ST3 elkartea	9.165,60
007-2014-DPI	HZ zerbitzuak	5.400,00
011-2014-DPI	Asociación Lorratz giza-elkartea	4.320,00

III. ERANSKINA

UKATUTAKOAK

Esp. Zk.	Eskatzailea	Arrazoia
019-2014-DPI	Bilbao OTA UTE	Ez dago deialdiaren xedearen baitan